



**June
Fernández**

◆
KAZETARIA

Lurrikara

GAUR, APIRILAK 10 dituela, lehendabiziko z lurrikara bizi izan dut Managuan. Lerro hauek idazten ditudan bitartean erreplikak sentitzen ari naiz. Gaueko hamaikak dira eta arratsaldeko bostetan hasi da lurrikara. Nire neba txikia eta bere ama atzo heldu ziren ni bisitatzera. Astindu zakarrekin nire bihotzak salto egin du eta lepoa uzkurto zait, baina 10 urteko neba ikaratuta esnatuko ote den kezkatzen nau gehien.

Momentu honetan nire azken maitalea falta izan dut. Hau orain dela hilabete batzuk gertatu izan balitz, orain bere besarkadarekin lasaituko nintzateke. Edo nire auzora etortzeko aukera izan ez balu, gutxienez telefonoz bere ahotsak ferekatuko ninduke.

Zorigaitzetan gure euskarri afektiboa falta izaten dugu, segurtasun eta bakea transmititzen digun pertsona. Askorentzat ama, aita edo aitita-amama izango da. Beste batzuentzat agian lagun min bat. Nire nebaren amak (nire aitaren bikote ohiak) oraintxe bertan bere ahizparekin hitz egin du telefonoz, eta eskegitzean hauxe esan du: “Orain lasai nago. Berarekin hitz egiten dudanean beti sentitzen dut dena ondo dagoela”. Nik harreman sexu-afektiboetan lortzen dut sosegu gehien. Kezkatzen nau, horrek nolabait bikotea izatearekiko mendeko bihurtzen nauelako.

Lurrikararen astinduak hondamendi bat eragin dezake, baina aldi berean lurra bizirik dagoela adierazten du. Irakatsi digute hondamendi emozionalaren arriskua dakarren amodio erromantikoa dela bizirik sentitzeko bidea

Feministok denbora asko daramagu amodio erromantikoaren erudia hausnartzten, alegia, mendekotasunean eta antsian oinarritzen dena, laranja erdiaren mitoan edo “zu gabe ez naiz ezer” bezalako esaretan. Emakumeok zein gizonok, heterossexual zein gay eta lesbianok, eredu hori ikasi dugu txikitatik, pelikula, abesti eta

inguruko mezuen bidez. Brigitte Vasallok *Disney amodioak* kontzeptua erabiltzen du eredu hori definitzeko. Emakumeongan eragin handiagoa dauka. Txikitatik printze urdina bilatzeko programatzen gaituzte eta maitasuna eta amatasuna gure bizitzako ardatz bezala mantentzeko. Egun, ikastera eta enplegu on bat bilatzera animatzen gaituzte, baina zoriontasun iturri nagusia familia nuklearra eraikitzea izango denaren sinespenak oso errotuta jarraitzen du.

Mari Luz Esteban antropologo feminista Maite Asensio *Berriako* kazetariari esan zion: “Arriskutsua da maitasuna izatea gure baliabide bakarra (...). Ez dut esan nahi maitasuna bizitzatik kendu, baizik eta beste gauza batzuk jarri”. Emakume gehienok, nik barne, energia gehiegi ematen dugu drama erromantikoak direla eta.

Aitortzen dut pasio erromantikoarekiko atxikimendu handia dudala. Nire droga gustukoena da. Estebanek dioenez “ez da esan behar ‘ez zaitez maitemindu’, baizik eta ‘hartu behar dituzun arnesak’. Mendi-ra kaskoarekin eta sokekin babestuta goazen bezala, maitasunean ere babestu behar dugu, ondo pasatzeko baina onik ateratzeko”. Baina posible al da arnesekin maitemintzea? Ez al da ezinbestez bertigo moduko bat, amildegira salto egiteko tentazioaren parekoa? Euskaraz “maitemindu” esateak eredu toxiko hori irentsi dugula frogatzen du.

Lurrikararen astinduak hondamendi bat eragin dezake, baina aldi berean lurra bizirik dagoela adierazten du. Irakatsi digute hondamendi emozionalaren arriskua dakarren amodio erromantikoa dela bizirik sentitzeko bidea. Nire autonomia eta ongizatea babestuz amodio libre eta osasungarriak bizitzea posible dela ikasi dut feminismoaren bitartez. Maitemintzen jarraitu nahi dut, baina betiere nire bizitzako erdigunea ni neu izanik, eta, printzesa urdinen zain egon ordez, pertsona anitzekin intentsitatea zein babesba ematen didaten harreman sendoak zainduz. Amodioa zoriontsu izateko bide bat den neurrian gozatu nahi dut, eta ez zorigaitzei aurre egiteko salbazio bezala erabili. ■

